

Lauaxeta Sariaren XX. edizioa

Bizkaiko Foru Aldundiak Labayru Fundazioari eman dio

2024ko Lauaxeta Ohorezko Saria

Bizkaiko Ahalduen Nagusiak, Elixabete Etxanobek,
eta Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak,
Leixuri Arrizabalagak,
2024ko Lauaxeta Sariak banatu dituzte.
Ekitaldia azaroaren 29an egin da
Bizkaiko Foru Jauregian.

Sari hauekin aitortzen da Bizkaian eta munduan
euskara sustatu eta zabaltzeko
lan egiten duten pertsonen eta erakundeen lana.
Helburua euskara gizartera gerturatzea da.

Lauaxeta Sarien kategoriak

2024ko Lauaxeta Ohorezko Saria

Sari hau Labayru Fundazioari eman zaio
1977. urtetik euskara ikertzeko, bultzatzeko
eta zabaltzeko egin duen lanagatik.

2024ko Poesiako Lauaxeta Saria

Kategoria hau bi ataletan banatzen da:

35 urtetik beherakoentzat.

Irabazlea Oihane Zuberoa Garmendia Glaria izan da,
“Bi aldiz iraun” poema-bildumagatik.

Hau idazlearen bigarren liburua da.

Lau atal ezberdinetan egituratuta dago.

Gai oso ezberdinez aritzen da, hala nola:

mito klasikoak, oroimena eta umezaroa,
heriotza, maitasuna eta poemei buruzko hausnarketak.

Epaimahaiak nabarmendu du egileak

gai horiek guztiak ezin hobeto lotzeko duen gaitasuna

eta irakurtzen duten pertsonen gai horiei buruz

hausnarrarazteko eta gozarazteko gaitasuna.

Mitoa: asmatutako protagonisten
bitartez historiako gertaerak
kontakizunak.
Protagonistak izan daitezke
botere magikoak dituzten izakiak,
heroiak edo jainkoak.

35 urtetik gorakoentzat.

Harkaitz Canok jaso du sari hau

“Ulu egiteko bolondres bila” poema-bildumagatik.

Lau atal ditu liburu honek.

Atal horietan 43 poema irakur daitezke.

Ironia presente dago liburu osoan zehar,
idazlearen aurreko lanetan gertatzen den bezala.

Ironia: pertsona batek esan nahi duenaren kontrakoa esaten duen adierazteko modua da.

Epaimahaiak nabarmendu du egileak

poema bakoitzean uzten duen mezuari jarraituz

poemak irakurtzen dituen pertsona

ikastera eta gozatzeraz gonbidatzeko duen gaitasuna.

2024ko Ikus-entzunezkoen Lauaxeta Saria

Sari hau Aitor Baztarrikak jaso du

“Jesús Carrera: Hondarribiko gorria” dokumentalagatik.

Dokumentalak Jesús Carreraren bizitzako historia aurkitzera garamatza.

Epaimahaiak sari hau eman dio

Euskadiko **memoria historikoari** egindako ekarpenagatik
eta gauzak modu berritzailean, hunkigarrian
eta beharrezkoan kontatzeagatik.

Memoria historikoa: gizarte batean iraganean gertatu ziren gertaera zailak gogoratzeko eta argitzeko balio duten esperientzien multzoa.

Sari banaketan zehar,

Laura Penagos aktore kolonbiarrak

monologo txiki bat eskaini du.

Gure kulturen izan dituen bizipen onei buruz

eta euskararekiko duen maitasunaz hitz egin du.

Monologoa: pertsona batek bakarrik hitz egiten duen hitzaldia.

Erraturie taldearen txalapartak

eskaini du musika ekitaldian.

Bizkaiko Ahalduen Nagusiak gogorarazi du

euskarak Historian zehar egin duen bidea

bizirik irauteko eta sendotzeko,

pertsona eta elkarte euskaldunen

etengabeko lanari esker.